

Pako Iriondoren agurra

Pako Iriondorentzat egun berezi eta hunkigarria izan zen aurreko igandea, 18 urte luzeren ondoren Euskal Mendizale Federazioko presidente-kargua utzi baitzuen Elgetako batzar nagusian. Opari eta txalo ugariren bitartez, haren lanari eskertza zintzoa egin zion euskal mendizaletasunak. Pakoren agurra, ordea, gero arte bat baino ez zen izan, Batzarrek aho batez ohorezko presidente izendatu baitzuen. Pedrotxo Otegiarekin batera, bera da izendapen hori jasotzen duen bigarren presidentea. Iriondok ere esker ona agertu zion euskal mendizaletasunari. Bazkalosteko epelean, bertso bat ere abestu zuen Iriondok. Aldarrikapen nagusi bat bere agurrean: «Segi dezagula gaur bezala denok elkarturik, gipuzkoar, arabar, nafar eta Iparraldekoak, guztiok». Elgetan, mahaitik hasita, lurralde guztiak egon ziren ordezkatuak.

Batzarreko beste une hunkigarria, Iriondok Alberto Iñurrategiri Federazioaren urrezko garaikurra eman zionean etorri zen. Txalo zaparrada eta Albertoren




esker onak, urte hauetan guztietan euren atzean eta ondoan egon diren guztiei.

Hasiera batean, igandean zen aukeratzekoa hurrengo presidentea ere, baina prozesua inpugnatua izan da, eta azaroaren amaiera arte itxaron behar da izendapen ofiziala ezagutzeko. Hala ere, Antxon Bandres hautagai bakarrak agurreko hitz batzuk egin zituen batzarrean.

MENTURAZ x Tamayo, Oiarzabal eta Bereziartuak amaitu dute Taklamakan basamortuko zeharkaldia

Hilaren 4an, iragan larunbatean, iritsi ziren Tarim ibaiaren ertzetara Jose Carlos Tamayo, Josu Bereziartua, Juanito Oiarzabal mendizale euskaldunak eta eurekin batera *Al filo de lo imposible* saioko taldekide batzuk, Sebastian Alvaro zuzendaria buru zutela. Urriaren 20an

Donostiako X. mendi astea x



Club Vasco de Campingek antolatuta eta Donostia Kultura egitarauaren barruan, X. mendi astea izango da datorren astelehenera. Astelehenean, Jordi Planak, Espainiako ikus-entzunezko egilerik onenetako batek, bi lan eskainiko ditu: *Ruwenzori: La montaña invisible* eta *Help-Congo: La esperanza de los chimpanzes*.

Asteartean, Josu

Granja argazkilari bikainak lurrazpiko paisajeei buruz prestatu duen lan berria aurkeztuko du. Asteazkenean, Joseba Egibarrek beste bi ikus-entzunezko aurkeztuko ditu: *Petra*, basamortuko hiri misterioitsuari buruzkoa lehena eta *El Sahel* bigarrena, Saharak eta Nigerrek mugatzen duten Afrika beltzari buruzkoa. Ikus-entzunezko guztiak Okendo Kultur Etxean izango dira, 19:30ean. Gogoratu behar da, gainera, 18:00etatik 19:30era Vasco de Camping taldearen 50 urteotako historia jasotzen duen argazki erakusketa dagoela ikusgai Okendon bertan.

Daheyen herrixkan hasitako zeharkaldia amaitu zuten hala. Yutianetik Daheyenera jeep-etan egin zuten bidea, 230 km guztira, eta han barneratu ziren basamortuko hareetan, 30 gamelu eta sei gameluzain uigur lagun zituztela. 15 egun eta 400 km geroago, Tanan herrian amaitu dute zeharkaldia. *Taklamakan-en esanahia (sartzen dena ez da ateratzen)* ez da bete oraingo honetan.

ESKALADA x Hirayama eta Sansoz nagusi Nantesko azken aurreko proban

Yuji Hirayama japoniarrak eta Liv Sansoz frantziarrak irabazi zuten joan den asteburuan Nantesen jokatu

zen Munduko Kopako azken aurreko proba. Modu horretan, sailkapen nagusiko lehen postua sendotu dute biek, eta okerrik ezear, Eslovenian eurek jantzikoko dute txapela. Leire Agirre izan zen euskal ordezkari bakarra Nantesen, eta azpeitiarra 13. izan zen, Munduko Kopako zailtasun proba batean lortu duen posturik onena.

Nesketan eta mutiletan superfinala jokatu behar izan zen. Nesketan bigarren Katrin Seldmayer alemaniarra izan zen eta hirugarren Stephanie Bodel. Mutiletan, bigarren Alex Chabot eta hirugarren Paul Dewilde, biak frantziarrak.

Chris Boningtonek jasoko du aurten Torelloko Urrezko Edelweissa



Chris Bonington alpinista britainiar ezaguna izango da aurten Torelloko mendi zinemaldiko ohorezko gonbidatua (Katalunia). Jaialdia gaur bertan hasi eta hilaren 19a arte luzatuko da. Bertan, mendiko zinemagintzako egile profesional eta amateur onenak bilduko dira. Boningtonen hitzaldiaz gain, izango da beste ekitaldirik. Bestek beste, *El secreto de la isla de las focas*, *El ingles que subio una colina pero bajo una montaña* eta *La guerra del bosque* filmak proiektatuko dira. Phil Borges, Takaschi Iwashashi, Craig Richards eta mendiko beste argazkilari ezagun batzuen argazki erakusketa ere ikusgai izango da Torellon.



Marronek Pirinioei buruzko diaporama aurkeztuko du gaur x

Jose Ramon Agirre Marron mendizale ataundarrak ikus-entzunezko eder eta ondo landuetara ohituta gauzka, eta gaur Donostiako Koldo Mitxelena aurkeztuko duena ere mimo bereziarekin prestatu du. Pirinioak, Harmonia izenburua jarri dio diaporamari, mendikate horretako irudiez osatua baita lana. Gidoia Imanol Agirrek egina da, eta ahotsa Mikel Mendizabalek jarri du. Hurrengo hilabeteetan Euskal Herriko hainbat leku eta txokotan gozatu ahal izango da ikus-entzunezko honetaz.



Garobel ibilaldia igande honetan

Igande honetan izango da Amurrioko Mendiko Lagunak taldeak antolatzen duen Garobel ibilaldia (XIV. aldian aurten). Bi ibilbide izango dira aukeran: bata luzea, 49 kilometrokoa, eta bestea motzagoa, 27koa. Ibilbide luzea Amurriotik bertatik abiatuko da, goizeko 07:30ean, eta Babio, Ungino, Eskutxi, Urieta eta Tologorri igo ondoren, Amurrian bertan amaituko da. Ibilbide motza Angulon hasiko da, 08:30ean, eta handik txango luzeko bide bera izango dute ibiltariak. Izena emateko edo informazio gehiagorako: 945-393832.